BIZITEGI ERAIKINA — PEDRO EGAÑA 2

D MAILA





Egilea eta data: Ramon Cortazar; 1916

Deskribapena

Etxadi buruko eraikina, jatorriz erdisotoa, bastardea eta bost goi oin dituena (azkena atzeraemana), gehi 1945eko jasodura bat, 5. oinarekiko partzialki atzeraemana (Prim kalera). Fatxadak, erdisotoan eta bastardean, kuxin formako kareharrizko estaldura du. 1. , 2. eta 3. oinetan, fatxada zeramikaz xaflatuta dago eta baoetan hareharrizko azpadurak ditu. Bi kantoietan hormigoizko begiratokiak ditu. 1945ean, hainbat bao zabaldu ziren erdisotoan. Jatorrizko proiektua eta jasoduren proiektua bat dator Prim 53koarekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2.- Berariazko erregimena.
A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: 5. eta 6. goi oinak.
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harri naturaleko elementuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzearekin lotzen direnak, hau da, erdisotoko baoen berrantolamendua justifikatzen dutenak.